

noaua



**Sagardo Egunaren itzulera
arrakastatsua iruditan**

**Inbertsio gehiago 2022ko
udal aurrekontuetan**

**Jakin Jardunaldirako
matrikulazio epea zabalik**

Sara Caballero:

**“Brasildarrekin alderatuta,
gu erabat lehorrak gara”**



ARATZ

zabaleta anaiak

1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04



munalurra 8, USURBIL

FUNERARIA GONZALEZ

EHRZTETXEA

*EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU
BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK*

**zerbitzu pertsonala,
eta familia bakoitzari egokituta**
ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU
GURE FUNERARIAARA DEITU ZUZENEAN
ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

www.funerariagonzalez.es

noaua.eus goranzko joeran

Erabiltzaileen kopurua %22'84 igo da

Ikusitako orrialdeen kopurua %27'65 igo da

Bisitek gora egin dute nabarmen: %43'06



**20 urte
sarean!**



noaua

noaua.eus, usurbildarren zerbitzura



Albisteak iruditan

Ezusteko kontzertua Txokoalden, Delirium Tremens zuzenean

Gutxitan goza daitekeen moduan eta gunean, formatu txikian, hurbilekoan. 30 urteko isiltasuna hautsi zuen aurreko larunbatean, Delirium Tremens taldeak, non eta Txokoalden. Ofizialki iragarri gabeko eta lagun arteko emanaldi bereziaz gozatu ahal izan zuten.

Izatez larunbat honetan, maiatzaren 28an, Barakaldoko BEC-en kontzertu berezia eskaintzeko du taldeak, McOnak eta Des-kontrol taldeekin batera. Hala iragarri zuten iragan udazkenean. Baina azken asteotan beste zenbait lekutan egiten aritu diren moduan, Txokoalden izan dute garai zaharrak berpizteko aukera ederra. Mutrikun sortu eta 1985-1991 urte artean jardunean aritu zen talde ezagunak kide usurbildar bat du orain gainera; Haritz Harreguy gitarra-jotzaile eta soinu teknikaria. Martxoan "Hola tio" izeneko



Maiatzaren 21ean Delirium Tremens taldeak Txokoalden eskaini zuen kontzertua.

abestia eta bideoklipa aurkeztu zituen Delirium Tremens-ek, "Hordago" zortzi abestiko disko berriaren aurrerapena. Hu-

rrengo hilabeteetan, Azkena Rock, Euskal Herria Zuzenean edota Hatortxu Rock jaialdietan entzuteko aukera izango da.

Laburrean

Intzidentzia gorantz

Nabarmen igo da azken astean, 100.000 biztanleko 14 eguneko koronabirusaren intzidentzia; 374,23tik 536,93ra hain zuzen. 16 covid19 kasu berri hauteman ditu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Usurbilen. Hilabete hasieratik maiatzaren 22ra guztira 39.

Telesail baten grabaketa

Azken grabazio egunak maiatzaren 26an eta 27an Txokoalden. Egunotan "aparkaleku nagusiko hainbat plaza gordeko dira telesailaren ekoizleentzat eta 5-10 minutuko trafiko mozketak laburrak egon daitezke", Usurbilgo Udaletik ohartarazi dutenez.

Jaietako ginkana

Usurbilgo jaien baitan, uztailaren 1ean 9:45an hasita ospatuko den LH 1-4koentzako ginkanan nahiz LH5-DBH2koentzako erronkan parte hartzeko izen-ematea zabaldu dute antolatzaileek ekainaren 18ra arte, santixabelak.umeen.eguna@gmail.com helbidean.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ugaitz Agirre

Pandemi ditzoso hori hasi ta handikan bi urtera Usurbilgo sagardo euna berriro're ospatzera. Hogeita hemeretzigarrena iritsi da kunplitzera, ta han gertatuak ta kontuak nator zuri kontatzera. Goizian goizik dena prestatzen bazan nahiko jaleua, sagardo kajak hara ta hona:

“Zertan ai haiz?”

“Noa hua?”

Hamaika terditan hasiera, ordurako asuntua prest eon bihar du ez badegu gaizki hasi nahi kontua. Botatzalliak beyen tokitan argazkiya eta gero, Noauako Itxaso t'Aritz oholtza gañian zihero urduri zeuden festa has-teko geratutzen baitzan zero. Usurbildarrak daukate kantau, “Txotx!”, esan ta denak ero.

Zoramen haren erdi-erdiyan aurkitutzen zan Izaskun bere lagunekin postuz postu ta edalontziya eskun. Bapatian mutil kazkamotz bat jantzita zego-na txukun parez pare tokatu zitzayon: «Gaur zerbait dakau jokun». Etziyon begirikan kendu, ez, mutillari goiz osuan. Gutxienian hamaika trago berak botiak basuan edan zituen, baita probestu galdetzeko nola zuan bere izena ta honek Xabi.

“Gero gaude deskansuan.”

“Ze ordutan bukatuko dezu? Ez bada atrebentziya.”

“Ordubiyak pasata seguru, ba al dezu pazientziya?”

“Itxarotiak ez du grazirik. Zatoz nekin, hoi utzi ya!”

Xabik buruakin ezetz. Latza

Sagardo Egunari jarriak



“Galdu ziran hainbat bala, baño ententituko dezu hoik kontau eziñak dila”.

UGAITZ AGIRRE

“Usurbilgo plazako jendiak zeukan aurpegi gorriya. Hala egotia- ren motibo sagardua, eguzkiya”

Izasan penitentziya. Ta ikusiko ziralakuan berriro ere frontoira. Bero zapa itogarri hartan falta zan haize firfira. Hori ezian sagarduari ahal zan guztiyetan tira ta elizako orratz txikiya pasa zan batetik bira.

Goizeko festa bukatutxian nes- kak topatu nahi posta, frontoyan ez, Askatasunan ez. «Nun sar- tu da ba artista? Pentsatu Izas, pentsatu Izas, ez al ziñan horren lista?» jende artera berriz begira zorrotzago zula bista.

Usurbilgo plazako jendiak zeu- kan aurpegi gorriya. Hala egotia- ren motibo sagardua, eguzkiya. Itzaletara erretiratu, deskantsua- ren premiya batek baño geyok zuan ziplo erortzen baitziran iya.

Izaskunek ta bere lagun- ek gauza bea zuten egin, nahiz ta lehenenguari hautua askorikan

ez atsegin. Iratik mozkortuta erregu pixkaten eseri zedin. Ese- rita're Xabiren billa jun ber zula berdin-berdin.

“Zer ikusi diyozu Izaskun lehe- nagoko mutil horri?”

Pentsatzen jarri ta berihala aurpegiya gorri-gorri.

“Hurbildu zaitetz, sekretua da ta ez kontatu iñorri. Internetez hitz egiñak gea, horratik nahi nun etorri.”

“Ze esatezu? Benetan Izas?” Zutaz enuen espero. Lotsati xa- marra zirudien... Beste bat izan ezker...”

“Ezetz ba Ira, beakin hitz ein det iya-ia gauero. Pentsatzen jarri ta derrepente nabari naiz bero-bero”.

Bokadilluak Bordatxotikan hartu eta errotondan bi moka- dutan irentsi zuten eta handikan segidan berriro ere botatzallia nun zegoenaren miran elkartu ta inprobisatzeko irrikaz eta desi- ran.

Sagardotikan garagardora jauzi eiteko denbora txarangaren bu- rrunba entzun ta kalia behera ta gora arrapaladan jende mordua

ondo jakin gabe nora. Baten baten eskua gerriyan, etorri zayo gogora: «Xabi izan dadi- lla mesedez, izan dadilla me- sedez». Burua biratu du Izasek desiyoz, eziñegonez. «Jode bera da, jode bera da!» Bere baitarako pozez, ta agurtu zun berriz mutilla ipurdiko bat emanez. Mutil kazkamotzari gustatu neskaren ipurdikua eta honek izan nahi zuenez baita demokratikua beste ipur- diko bat neskari, gehi opari zimikua. Horrela segi zuten jarraituz txarangaren erritmua. Ta txoznetara allatutxian hartu zuten txupitua ezarriya ta sa- bel aldia erretzeko modukua. “Kaixo” “Kaixo” “Zemuz?” “Ondo ta zu?” “ondo, pixkat mozkortua”. Gerritik heldu, mingaña sartu: han bukatu zan kontua.

Muxu bat lehenengo ta jarra- yan ukituak, igurtziyak. Asko- rako ziyan emateko zeukaten beroaldiyak. Arnasa hartzeko denboaik ez zuen biyak ala biyak, lehentasunak aldatutze ditu holakuetan biziya. Egu- raldikuek esan zuten galerna sartuko zala, ohartu ere etzi- ran goitik behera bustita zira- la. Kontu geyo're gertatu ziran, galdu ziran hainbat bala, baño ententituko dezu hoik kontau eziñak dila. Pandemi ditzoso hori hasi ta handikan bi urtera Usurbilgo sagardo eunen bate- ra eta bestera ibilitako bikotiari jazotako gertaera egiya edo ge- zurra ote? Hori ya zure aukera.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Txupinazoa nork jaurti, herriaren esku

Jaietako egitaraua diseinatzen lehiaketa itxi berritan (maiatzaren 25a baino lehen aurkeztu behar ziren diseinu lanak), festak herriatik herriarentzat antolatzen direla, horren adierazle argia den beste ekimen berreskuratu du Jai Batzordeak bueltan datozen Santixabeletarako. Ekainaren 29tik uztailaren 3ra ospatuko diren Usurbilgo festei hasiera nork emango dien herriak erabakiko du. Ekainaren 6ra arte proposatu ahalko dira udaletxeko balkoitik txupinazoa jaurtitzeko hautagaiak.

Proposamenak argudiatu

Ekarpenak udaletxean, Potxoeanean, Sutegin eta Oiardo Kiroldegian egokituko dituzten kuxetan utzi beharko dira. Baina adi, bi galderei erantzun beharko zaie; lehenbizi, “nork bota beharko luke aurtengo Santixabeletako txupinazoa, zure ustez?”, eta segidan



Emailer ere helarazi daitezke ekarpenak, kultura@usurbil.eus helbidera.

TXUPINAZOA

**“Ekainaren 6ra arte
proposatu ahalko dira
hautagaiak”**

erantzuna argudiatu beharko da, “zergatik?” galderari erantzun beharko zaio. Bozka paperak kutxen ondoan ego-

kituko ditu Jai Batzordeak, “norberak moztu eta kutxan sartzeko”, berri eman dutenez. Bozkatzeko paperak ekaineko kultur agendan ere txertatuko dituzte, “norberak moztu eta kutxan sartzeko”. Jai Batzordetik ohartarazi dutenez, “proposamenak kontuan hartuak izateko beharrezkoa izango da azaltzea botoaren zergatia”.

Milioi erdi tiket Alkartasunan

500.000 tiket fakturatzera heldu da Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba. Milioi erdi kopuru borobil horretara heldu zen tiketaren jabea saritu nahi izan dute. Alkartasunatik helarazitako ondoko argazkian duzue; Maixabel Balerdi. “Zenbaki borobil hau egokitzen zitzaion bezeroak saria behar zuela pentsatu genuen eta bertako produktuekin saski bat prestatu genuen”, azaldu diote NOAUA!ri.



500.000. tiketaren jabea saritu du Alkartasuna Kooperatibak.

Matrikulazioa ixtear Zumarten

Hurrengo ikasturterako matrikulazio epea maiatzaren 27an itxiko dute Zumarte Musika Eskolan. Zumarte.eus atarian galdetegi online beteta eman beharko da ize-na edo web horretako inprimakia bete eta ostegunean aurkeztu ahalko da musika eskolan ordutegi honetan: 10:00-12:30/17:30-19:00. Informazio gehiago 943 371 594 telefono zenbakian.

Zirimaran izen ematea ixtear

Maiatzaren 27ra arteko epea dute HH nahiz LH 1-4 artekoek 2022-23 ikasturterako Zirimaran matrikulatzeko. Izen ematea online bideratu behar da. Matrikulaziorako formularioa, <https://forms.gle/gQa4UkzFh8p7PaPE7> estekan eskuratu daiteke.

Udako ikastaroak Kiroldegian

Maiatzaren 29ra arte online matrikulatu ahalko da Kiroldegiko udako ikastaroetan. Kirol Txokoa eta eskalada antolatu dute LH-koentzat, Udako Kirol 12-16 urte artekoentzat; spinning, pilates, 3. adina, mantenu gimnasia eta aquagym helduentzat. Igerilekuan, hastapena, hobekuntza eta errendimendu ikastaroak helduentzat, HH nahiz LH 1-3 artekoentzako igeriketa taldeak. Informazio gehiago: 943 37 24 98 /kirola@usurbil.eus

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BONEX
REHABILITACIONES S.L.

ERAIKINAK BIRGAITZEKO
ETA HOBEKUNTZA ENERGETIKOA
LORTZEKO SOLUZIOAK

- * Impermeabilizazioak
- * Isolamendu termikoa
- * Teillatuak
- * Mantenimendua
- * Fatxadak

Zubiaurrenea Kalea 3, 20170
Usurbil | Tlf: 625077916
info@bonex.es

Otar-Goxo
Elizagaia

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

“Fabeletan urik eta elektrizitaterik gabe bizi dira, baina musika jarri eta inor baino zoriontsuago dira”

Bizitzak bigarren aldiz eraman du Brasilera Sara Caballero usurbildarra. Ikasketak amaituta, praktikak egiten ari da Sao Pauloko enpresa batean. Lehen esperientzia oso ederra izan zuen, eta bigarren honetako asmoak azaldu nahi izan dizkio NOAUA!ri.

NOAUA! Nolatan joan zara Brasilera?

Sara Caballero: Nazio Harremanak gradua ikasi dut unibertsitatean, eta hirugarren urtea derrigorrez kanpoan egin beharra neukan. Ez neukan inolako asmorik Europan gelditzeko, ez eta Amerikako Estatu Batuetara joateko ere. Beraz, Brasilera joan nintzen Belo Horizonte izeneko hirira.

9 hilabete baino ez nituen egin bertan -12 hilabeterako joan nintzen, berez-, pandemiaren ondorioz itzuli egin behar izan nuelako. Behin hemen, unibertsitate ikasketak amaitu nituen urruneko ikasketa metodoaren bitartez. Dena amaitu nuenean, Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen beka bat hartu nuen, nazioartekotze beka bat. Irailetik abendura master moduko bat egin dut hiru unibertsitatetan: EHU, Deusto eta Mondragon-en. Hiru unibertsitateen artean formakuntza eman ziguten Bilbon eta urtarritetik hona praktikak egitera etorri nintzen. Hasiera batean Aus-



“Behin ikasketak amaituta, Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen beka bat hartu nuen, nazioartekotze beka bat”.

SARA CABALLERO

“Nire curriculumak ikusita, Brasilgo enpresa asko nirekin kontaktuan jarri ziren eta hona etortzea erabaki nuen”

traliara joan nahi nuen, baina pandemiaren kontua dela eta, ezinezkoa egin zitzaidan. Saiakerak egin nituen enpresaren bat topatzeko, baina

ez nuen lortu, erabat bide-razina zen. Nire curriculumak ikusita, Brasilera etortzea erabaki nuen bertako enpresa asko nirekin kontaktuan jarri baitziren. Espainiako enpresa batentzat egiten dut lan hemen, Sao Pauloko bulegoetan. Oso denbora gutxi neukan zerbait erabakitzeke, eta Brasilera itzultzea erabaki nuen. Pandemiaren ondorioz, traba asko jartzen dituzte orokorrean denerako. Orainxe bertan, bisarik gabe nago, turista bisa baino ez daukat.

Bisa berria lortzeko herrialde-terik atera behar dut, Buenos Airesera joan eta bertan Brasilgo kontsulatuaren bisa berria eskatu. Eromen bat da hau guztia, baina tira. Lehen aldiz etorri nintzenetik maiteminduta nago herrialde honekin, eta hona itzultzeko inolako arazorik ez dut izan. Sao Paulora etorri naiz oraingoan, eta oso gustura nago.

Urtarritetik San Paulon bizi zara hortaz.

Printzipioz kontratua irailera arte daukat, abuztuaren 31era arte. Gerora ez dakit zer izango den, agian, enpresak kontratua luzatzea eskainiko dit edo bestela hemen geratuko naiz eta beste lanen bat bilatuko dut. Kolonbia eta Costa Rica oso begiko ditut, eta herrialde horietara joatea ere ez dut baztertzen. Orainxe bertan, dakidana da iraila arte hemen egongo naizela eta gero gerokoak.

‘Tokitan’ atala

NOAUA!n zabaldu dugun atal berri honi ‘Tokitan’ izena ipini diogu. Atzerrian bizi diren usurbildar gehiago elkarriketatu nahi ditugu txoko honetan. Egoera horretan den herritarren bat eza-gutzen baduzu, bidali bere izena gure posta helbidera: erredakzioa@noaua.eus

“9 hilabetetan denbora eman zidan hizkuntza bereganatzeko”

NOAUA! Brasilen portugesez mintzo dira. Ondo moldatzen al zara hizkuntza horretan?

Sara Caballero: Belo Horizonten egon nintzenean, Brasilgo jendearekin bizi nintzen eta unibertsitatean

ere klaseak brasildarrez egiten nituen. Niri ez zitzaidan interesatzen espainiarrekin edo euskaldunekin egotea egun guztian. Ezin dut ulertu hori egiten duen jendea. Behin Brasilera etorrira, etxetik 8.000 kilometrorra, nola egongo naiz

bada, Espainiako jendearekin? Nire lagun taldea bertakoa zen, eta beraz, 9 hilabetetan denbora eman zidan hizkuntza behar bezala hitz egiteko. Ez dut esango %100 kontrolatzen nuenik, baina ia-ia. Goizean esnatzen nintzenetik

lotara joaten nintzen arte, portugesa entzun, irakurri eta hitz egiten nuen. Bi urte dira azkenekoz hemen izan nintzenetik eta zerbait ahaztu zait ordutik, baina behin iritsita segituan hartu diot berriz tamaina.

“Osasun sistema oso ona daukate Brasilen, Latinoamerikako onenetarikoa”

NOAUA! Sao Paulo hiri handia izanda, atzeritar asko egongo da bertan ikasten eta lanean.

Sara Caballero: Latinoamerikari buruz hitz egitean, brasildarrek ez dute euren burua latinotzat, Ertamerika eta Hegoamerikako herrialde bakarraitira gazteleraz hitz egiten ez dutenak. Oso harro esaten dute eurak ez direla latinoamerikarrak, eurak brasildarrak direla. Zentzu horretan, ez ditut migratzaile latinoak gehiegi ikusi. Brasil hegoaldean latinoamerikar gehiago dago, Argentinatik etorriak gehienak. Fenomeno hori gertutasunak sortuko du, agian. Nik Sao Paulon jende asko ikusi dut Asiako jatorria duena. Bigarren Mundu Gerraren ostean japoniar pila bat etorri ziren bertara eta haien ondorengo asko daude hemen. Iparraldean afrikar jatorria duen jende asko dago, esklabutzaren ondorio argia. Brasil oso herrialde handia da eta iparraldeak ez du hegoaldearekin zerikusirik. Hegoalde askoz ere europarragoa da eta migratzaile europar asko egon da bertan, eta jendea ere zuriagoa da. Iparraldekoek askoz ere azal ilunagoa dute, eta orokorrean, pobreagoak dira. Niri iparraldeak izugarri gusta-



Brasilen “punta-puntako auto bat ikus dezakezu zure ondotik pasatzen, eta alboan bost urteko haur bat hankutsik txikleak saltzen”.

SARA CABALLERO

“Niri Brasilgo iparraldeak izugarri gustatzen zait. Hegoaldeak baino bereziagoa iruditzen zait”

tzen zait, askoz ere bereziagoa da. Sao Paulo oso-oso hiri handia da eta mundu zabaleko jendea dago, 40 milioi pertsona bizi dira estatuan eta 15 milioi hirian. Herrialdea oso handia da, ia kontinente oso bat, eta barne migrazio handia dago. Barne migrazioa azpimarratuko nuke gehienbat.

Pandemia lehertu zenean, Brasil hedabideen jomuga izan zen Bolsonaroen politiken ondorioz. Joan zinenean, nola utzi zenuen herrialdea? Eta itzuleran, nola aurkitu duzu?

Jende ugari ikusi dut kalean bizitzen, eta horrek asko harritu nau. Belo Horizonten ere jendea kalean ikusten nuen, Brasil oso herrialde desorekatua baita. Punta-puntako auto bat ikus dezakezu zure ondotik pasatzen, eta alboan bost urteko haur bat hankutsik txikleak saltzen. Orain, ordea, jende asko ikusi dut horrela, eta esan didatenez, pobrezia mailak asko egin omen du gora.

Horrez gain, bada azaldu beharreko faktore garrantzitsu bat. Europan eta munduko hainbat txokotan, pandemia datuak okertzean denok etxera bidali gintuzten hasierako itxialdi hartan, eta gerora ere, inguruan kutsaturen bat izaenez gero, etxean gelditu beharra geneukan. Hori ezin da egin hemen. Laguntza ekonomiko publikorik ia ez dago eta jendea ez bada lanera joaten ez dauka jatekorik. Hala ere, osasun sistema oso ona daukate, Latinoamerikako onenetarikoa. Biztanleen %80 txertatuta dago, gainera. Farmazietan txertatzeko aukera omen dago. Herrialde honetan ez da bidegarria inor berrogeialdia egitera behartzea. Europatik begiratzen dugunean eta Brasilen heriotza-kopurua zenbatekoa den ikusita, oso modu errazean esaten da berrogeialdia egin beharra dagoela eta denek etxera joan beharko luketela hilabetez, baina jendea gosez hilko litzateke hala egingo balute. Jendeak Covid-19az gain, beste hainbat arazo ditu. Europan arazo bat eta bakarraitira nolabait esateko, baina hemen mila arazoetako bat baino ez da. Askotan ez gara horretaz konturatzen.

“Brasildarrekin alderatuta, gu erabat lehorrak gara”

NOAUA! Brasildarrak oso alaiak eta dantzazaleak omen dira. Hala al da?

Sara Caballero: Bai, erabat. Gu brasildarrekin alderatuta erabat lehorrak gara. Gabonetan familiakoekin Stockholmon izan nintzen eta bertakoak oso-oso serioak dira gurekin alderatuta ere. Brasilera etorri eta aurkakoa erabat. Kanean jendeak elkarri hitz egiten

dio ezagutu ere egin gabe, eta taberna batera joanez gero, hizketan hasi eta handik 10 minutura zure lagunak onenak dira. Orokorrean, arazoei askoz ere pisu gutxiago jartzen diete. Fabela batera joan eta milaka pertsona edateko urik eta elektrizitate gabe bizi dira, baina musika jarri eta inor baino zoriontsuago dira. Oso kultura komunitarioa daukate, eta hori

asko gustatzen zait. Gu beraiekin alderatuta oso serioak gara. Beste mundu bat da hau.

Non irudikatzen duzu zeure burua urte batzuk barru?

Badakit Usurbila itzuliko naitzela noizbait, baina hori 40 urterekin izango da eta munduko hainbat txoko ezagutu eta gero. Hori garbi daukat. Denboraldi bat Kariben eman

nahiko nuke Kolonbian edo Costa Rican, eta Australiara ere joango nintzateke, baina oso mendebaldar bihurtua dago, eta ez dakit gustatuko ote zaidan. Ez dut sekula denbora asko eman etxetik kanpo, eta beraz, nora joango nintzatekeen esatea zaila da. Nik beroa eta eguraldi ona behar dut, eta horregatik Karibe aldera joateko asmoa.

Nongo ura edaten duzu zuk?


U raren gaia zuten pil-pilean duela 25 urte. Añarbeko ura edota Usurbilgoa, egun bezala, batzuk leku batekoa edaten zuten eta besteek beste batekoa. Kale inkesta egin zuten iritziak biltzeko, eta orokorrean, jendea oso gustura zegoen uraren kalitatearekin. Erreportajea ere egin zuten gaian sakontzeko, eta adituen ustez ere, ura kalitate onekoa eta edangarria omen zen.

Horrez gain, jai egunak ziztuzten herrian. Gipuzkoako Eskola Txikien festa egitekoak ziren Adunan eta hara hurbiltzeko deia egin zuen **Karmele Karrerak**, Zubieta eta Santueneako herri eskoletako maistrak. Herrian bertan, Usurbil UEMAn sartzekotan zela eta, hainbat ekitaldi prestatu zituzten astebururako, ia herriko jaietan baino ekintza gehiagorekin. Ikastolaren Eguna ere ospatzekoak ziren hurrengo

asteburuan eta ekintzak aurreikusituzten ikastolan.

Zubeldia anaiak

Kirol arloan, **Haimar Zubeldia** eta **Joseba Zubeldia** gailendu egin ziren Euskadiko Txapelketan. Palan ere, usurbildarrek irabazi zuten lasartearren aurkako txapelketa. Kontu hauez gain, Usurbilgo Dantza Taldeari buruzko erreportajea eskaini zuten taldearen historian sakontzeko.



1997ko maiatzaren 30eko portada.

Duela 25 urte

NOAUA! 21. zenbakia 1997ko maiatzaren 30ean

“Aitonak eta aitak baratzekeko landareekin lan egiten zuten”

U rtinea baserrian jaio zen 42 urteko Sanestebandar hau, nahiz eta gaur egun Santuenean bizi den. Bi seme-alaba ditu (Ainhara eta Arkaitz) eta denborarik gehiena lore eta landare artean ematen du.

NOAUA! Noiztik zabilta Urtineako lorategian lanean?

Maribi Arrospide: Uste dut betidanik. Nire aitona lorazaina izan zen, aita ere bai. Eta noski, nik ere tradizioarekin jarraitu dut. Senideekin aritzen naiz lanean.

Beti lan egiten duzue loreekin?

Ez. Nire aitonak eta aitak baratzekeko landareekin lan egiten zuten. Duela 25 urte hona, lore eta landareekin hasi ginen lanean.

Tratu desberdina behar al dute landareek?

Noski, batzuk oso delikatuak dira eta. Adibidez, lore batzuei ezin die eguzkiak jo. Beste batzuei, berriz, hostoak ezin zaizkie busti... Delikatuenak barruko landareak dira: bideta, afrikarra, begonia rexa...

Noiz saltzen da gehiago?

Batez ere udaberri eta udan, orduan izaten baitira ezkontza gehientsuenak. Udazkena ere garai ona izaten da. Eta gutxiena, berriz, abenduan. Hil honetan ez da ia inor ezkonitzen.

Ezkontzarako loreak nork aukeratzen ditu?

Normalean neska eta bere ama etortzen dira. Senargaia ez da ausartzen horrelako erabakiak hartzen.

Elizak ere apaintzen omen dituzu.

Bai. Asteburuetan hori egiten dut. Elizara joan eta lorez apaindu. Sanestebango ermita buruz ikasia dut, hainbeste jende ezkontzen da bertan! Usurbilgoez gain, Lasarte eta Donostialdeko batzuk ere apaintzen ditut. Eliza batzuetan beraiek esaten dizute non jarri ditzakezun loreak.

Autoak ere txukuntzen dituzu, ezta?

Bai, horiek ere bai. Goizean hemendik pasatzen dira eta ziztu bizian ateratzen dira eliza aldera ezkongia eraman asmoz.

Ezkontzaz gain, noiz saltzen duzue gehien?

San Balentin egunean. Egun horri guk “Gizonen Eguna” deitzen diogu, emakumerik ez delako agertzen egun horretan. Ia denek larrosa gorriak erosten dituzte.

Emakumeek ez al dute loresortarik oparitzen?

Lagunei edo amari bai; baina gizonezkoei gutxi. 100etik bateko edo. Alderantziz, gizonnezkoek aspaldi honetan asko ikasi dute loreak oparitzen, nahiz eta aukeraketa zure esku jarri. Hala ere, oraindik emakume helduak dira erosle onenak.


Behin lorea moztu ondoren, zenbaterako bizia du?

Hori lorearen araberakoa da, baina orokorrean, udan zortzi eta hamar egun bitartean. Neguan bi edo hiru aste bitartean. Beti ere uretan eta leku freskoan dagoela.

Aspirinarik edo erabiltzen al duzu?

Ez. Ez dute ezterako balio. Niri behintzat ez didate inolako emaitzarik eman.

Egia al da loreei hitz egitea ona



Maribi Arrospide Iturralde.

dela?

Nik behintzat ez diet hitz egiten! Horixe behar genuen! Askotan izugarriak esan bai! Baina pertsona askorentzat loreak zaintzea lasaigarria da “hobby”-tzat hartzen dute, batzuek hitz egingo diete, baina nik behintzat ez.

Zein da zure lore gustukoa?

Orkidea, larrosa eta lilia.

Noizbait oparitu al dizute lorerik?

Ez, behin ere ez, gainera, uste dut oparitzen dizkidanarentzat nahiko “gogorra” izango zela. Segituan hasiko nintzen akatsak ateratzen. Deformazio profesionalaren araberakoa izango da.

Euskaraldiaren hirugarren ediziorako herri batzordea sortzen laguntzeko deia

Badator bueltan, 22. Korrikak utzi digun ahozazore ezin gozoagoaren ostean, 3. Euskaraldia antolatzen hasteko unea. Beste herrietan egiten ari diren moduan, Usurbilen ere urte amaieran euskararen erabilerran eragiteko egingo den ariketa kolektiboaren prestaketa lanei ekiteko herri batzordea sortzeko deia luzatu dute. Lehen bilera, maiatzaren 31n, arratsaldeko 18:30etan Potxoeanean izango da.

“Euskalgintzan aritzeko prest dagoena ongi etorria izango da, bultzada txikiak ere aurrera egiten laguntzen digulako. Zahar zein gazte, Ahobizi zein Belarriprest, denek izango dute zeresana batzordean”, adierazi dute deitzaileek.

Dinamikaren eta parte hartzearen berri

Geure hizkuntza ohituretan eragin nahi du Euskaraldiak, “euskarazko hizkuntza praktikak hedatzeko”. Zer pentsatua eman ere bai. “Norberaren hizkuntza portera eta ohituren inguruan gogoeta eragin eta aldaketan lagungarri izatea”.



2020ko Euskaraldia iragartzeko Mikel Laboa plazan bildu ziren herri eragileen ordezkariak.

EUSKARALDIA

**“Zahar zein gazte,
Ahobizi zein Belarriprest,
denek izango dute
zeresana batzordean”**

Ditugun inertiak apurtzea sustatu eta Euskaraldiak, gizartearen eragiten duten entitate mota guztiek “hizkuntza ohitura aldaketan babes neurriak hartzea” baita. Izaera kolektiboa duen ekimen ho-

nen bidez, “gizarte aktibazioa bultzatzea”, euskaltzaleen artikulazioa eta arlo honetan diharduten eragileak ere ekimen bateratu honen bueltan antolatzea sustatu nahi dute.

Helburu horrekin bat egiten duen herritar oro dago gonbidatua maiatza amaierako hitzordura. Aurkezpen modukoa egingo da ekitaldi honetan. “Aurtengo Euskaraldiaren nondik norakoak azaltzeaz gain, batzordearen dinamika berri eman eta bertaratuek

zer-nola parte har dezaketen azalduko dugu. Denen ekarpenak izango dira ongi etorriak!”, adierazi dute deitzaileek.

Indartuta eta gogoberrituta ekingo diete Euskaraldiaren hirugarren edizioko prestaketa lanei. Azken urteotan, euskalgintzaren alorrean lanean aritu da herritar talde bat.

Urrunago joan gabe, iaz “Hikastea”, hitanoaren erabilera eta ezagutza sustatzeko ikastaro eta ekimen zikloa antolatu zuten.

Entitateen izen-ematea zabaldu dute

Momentuz, aurreko edizioan izena eman ez zuten entitateentzat hirugarren ekinaldi honetan parte hartzeko inskripzio epea zabaldu dute, baita beharrezkoa dutenek, izena emana dutenen kasuan, datuak eguneratzeko ere. Euskaraz lasai aritzeko guneak sortu behar dituzte. Entitateentzat jo daitezke, herri eragileak, erakundeak, lantegiak... Aurreko edizioan bezala.

Oraingoan ordea, erronka “euskararentzako ariguneak areagotzea” da.

“Emozioz ekingo diogu ariketari”

Entitateekin batera, norbanakoei ere parte hartzeko gonbita luzatuko zaie; Ahobizi nahiz Belarriprest eza-gunei. Kasuotan, izen-ematea aurrerago irekiko du antolakuntzak, irailaren 28an. “Data horretatik aurrera izan-

go dugu parte hartzea berretsi edo izena estreinakoz emateko aukera”.

Hirugarren Euskaraldia, aurrekoen antzera, bi astez luzatuko da, azaroaren 18an hasi eta abenduaren 2ra arte. Tarte horretan, “ilusioz, arduraz, gogoz eta emozioz ekingo diogu ariketari. Kaleak beteko ditugu berriz ere, euskaraz hitz egitea inoiz baino errazagoa izan dadin. Belarriprestok eta Ahobiziok aukera

berriak izan ditzagun lan egingo dugu elkarrekin, auzoz auzo, herriz herri eta arigunez arigune. Hitzegiteko garaia heldu da”, nabarmendu dute antolatzaileek. Ariketa kolektiborako unea heldu artean, “herrietako batzordeetan parte hartzeko gonbitea egin nahi dizugu, Hitzegiteko garaia baita!”. Informazio gehiago, euskaraldia.eus atarian.

Irati Larrañaga: “Kasualitatez hasi nintzen mendi lasterketetan parte hartzen”

Irati Larrañagak 29 urte ditu eta gaztetan hasi zen atletismoan nabarmentzen. Duela urte batzuetatik hona ordea, mendi lasterketetan aritzen da. Jarduerari honi buruzko hainbat azalpen eskaini dizkigu: entrenamenduak, begiz jota dituen probak...

NOAUA! Nolatan hasi zinen mendi lasterketetan parte hartzen?

Irati Larrañaga: Kasualitatez iritsi nintzen mendi lasterketetara. Ikasketak amaitu nituenean, txapelketak baztertu nituen eta kirola egiteari utzi nion. Denboraz justu ibiltzen nintzenez, korrika eta patinetan hasi nintzen erresistentzia mantendu asmoz, kirol pixka bat eginez. Mendian korrika hasi nintzen orduan. Lagun batek animatu ninduen probatzera eta pixkanaka hasi nintzen. San Silbestre lasterketan korrika egin nuen. Jende gehiena San Silbestre, Lilatoia eta halakoetan hasten da. San Silbestre hartan mendi lasterketa baterako dortsala irabazi nuen. Euskal Herrian aski ezaguna den Bi Haundiak Goierriko mendi lasterketako dortsala, hain zuzen. Dortsala oparitu egin nahi nuen nik, baina esan zidaten ez zela posible. Hala animatu egin ninduten korrika egitera eta hori prestatu nahian



“Sekretu gutxi dago mendi lasterkari baten ibilbidean. Kilometroak egin eta entrenatzean dago giltza”.

IRATI LARRAÑAGA

“Astean zehar Zubieta eta Txokoaldeko inguru horietan ibiltzen naiz korrika”

hasi nintzen eta hura izan zen nire lehen mendi lasterketa.

Mendiko lasterketak oso gogorak dira. Gaitasun fisiko bereziak beharko dira, ezta?

Sekretu handirik ez da. Kilometroak egin eta entrenatzean dago giltza. Pertsona batzuk badituzte edo baditugu kirolerako gaitasunak, baina entrenatu eta prestatuta edonork

egin ditzake mendi lasterketak. Ez naiz mendi lasterketa luzeek ari, baina jendeak uste du denbora guztian korrika egiten dugula eta ez da horrela. Mendian gora egiten diren zati asko oinez egiten dira. Jarraikortasunez entrenatu eta kilometroak eginez lor daiteke. Disfrutatu ere egin behar da, bestela oso zaila da jarraikortasun hori mantentzea.

Nolakoak dira mendi lasterkari baten entrenamenduak?

Hor gakoa kilometroak egin eta prestatzea da. Nik ez daukat entrenatzailerik, nire kabuz ibiltzen naiz. Atletismoan urte asko egin nituen eta ezagutza

batzuk baditut.

Ez dut egunero entrenatzen, baina astean laupabost aldiz bai. Normalean, asteburuak aprobetxatzen ditut mendira joateko, denbora gehiago dudalako kilometro gehiago egiteko. Astean zehar Zubieta, Txokoalde edo inguru hauetan ibiltzen naiz korrika. Eta astean behin, indar-lana egitera gimnasio-ra hurbiltzen naiz. Horrek ere garrantzia handia du. Badirudi goraka joatean sufritzen dela, baina beheranzkoan atzematen da gehien indarririk baduzun edo ez hanketan. Beherakoan talka handia izaten da, aldapak oso penditzak izaten dira eta indar-lana oso garrantzitsua da.

“Lasterketa laburretan gusturago nabil”

NOAUA! Distantzia ezberdineko probak daude mendi lasterketen zirkuituan. Zein da erosoena egiten zaizuna?

Irati Larrañaga: Hiru distantzia bereizten dira mendi lasterketetan. Motzak edo sprint deitzen direnak, 20 kilometro baino gutxiagokoak.

Niri gehien gustatzen zaizkidan distantziak hauek dira. Orain arte egin dudak lasterketarik luzeena 21 kilometrokoa izan da.

Bestalde, maratoi distantzia arteko lasterketak daude, 45 kilometro bitartekoak. Behin distantzia horiek baino luzeagoak

direnean, ultra distantziako lasterketak izaten dira. 60 kilometrotik hasi eta 200, 250 edota 300 kilometroko lasterketak dira azken hauek. Aukera oso zabala da, ordubete egin daitezkeen lasterketetatik hiru egun geratu gabe irauten duten arte.

Ni momentuz lasterketa laburretan gustura nabil eta oraingoz ez nago distantzia luzeoko lasterketetan disfrutatzeke moduan. Nire helburua disfrutatu eta ondo pasatzea denez, ez dut distantzia luzeagoetarako pausoa eman.

“Ekainean Uxue Trail Usurbilgo lasterketan hartuko dut parte”

NOAUA! Hainbat sari, hainbat podium egin dituzu. Epe erdiera, zein da zure helburua?

Irati Larrañaga: Oraintxe bertan ez daukat helburu jakinik edo begiz jotako lasterketarik. Urte osoan zehar lasterketak dau-de. Iraila edo urrira arte egoten dira lasterketak eta negu aldean geldialdia izaten da. Mendi askotan elurra izaten da eta egoera aldatu egiten da, eta beraz, murrizketak izaten dira. Ekainerako aurreikusita daukat Tolosako T2T bi tontorrek egitea. Ondoren, Uxue Trail, Usurbilgo lasterketan hartuko dut parte. Udan ikusiko dut zein lasterketa dauden eta horren arabera erabakiko dut zeintzuk egin.

Lehiakortasun handia dago mendi lasterketetan ala, alde-rantziz, lagun giroa da nagusi zuen artean?

Nik Aralar Canvas kamisetarekin egiten dut korrika talde batean eta lagun giroan aritzen gara. Hobby bera dugun lagunak garestuak esango nuke, eta entrenatzeko elkartzen gara. Asteburuetan elkarrekin mendi bideak partekatzen ditugu denok bide berriak ezagutzeko aukera izan dezagun, bai entrenatzeko bai eta lasterketarako ere. Lehiakortasuna bakoitzaren arabera dela uste dut, bakoitzak lasterketak ulertzeko daukan modu horren arabera. Nik lehiakortasuna neure buruarekin daukadan zerbait dela uste dut; egunero hobetu nahi hori. Lasterketan geure burua animatu eta harekin borrokatzen dugu, eta normalean jakiten dugu gaitz nontzakoak hobeak edo txarra-goa diren. Beti saiatzen gara aurrekoa harrapatzen, baina norberarekin daukagun borroka da gurea. Nik inguruan laguntasuna sentitzen dut eta inguruan oso giro ona daukat.



“Iraila edo urrira arte egoten dira lasterketak eta negu aldean geldialdia izaten da”. Argazkia: Jon Esnaola.

IRATI LARRAÑAGA

“Ni atletismotik nator. 12 bat urterekin hasi nintzen eta 22 urte arte horretan aritu nintzen”

Zure ibilbidean, zer nolako garrantzia izan dute prestatzaileek?

Ni atletismotik nator. Urte asko egin nituen kirol horretan, 12 bat urterekin hasi eta 22 urte arte horretan aritu nintzen. Hiru entrenatzaile izan nituen bitarte horretan, nahiz eta ez nintzen lasterketetan ibiltzen. Saltoak egiten nituen nik. Al-tuera jauziarekin hasi nintzen eta jauzi hirukoitza egin nuen

ondoren. Lasarten Oscar Goikoetxearekin hasi nintzen, Ramon Cidekin aritu nintzen gero, eta Bartzelonara ikastera joan nintzenean, Angel Garciarekin entrenatu nuen lau urtez.

Hiru entrenatzaile horiek balio batzuk eman dizkidan, besteak beste, lanean saiatua izaten. Atletismoan zenbakiak oso garrantzitsuak dira; zenbaki bat lortu eta hori hobetzen saiatzean datza. Bartzelonan astean bostetan entrenatzen genuen, astelehenetik ostirale-ra, egunero hiru orduz. Diziplina bat eman eta jarraibide batzuk eman zizkidaten: zer egin, zer ez egin, nola egin... Zortea izan dut atletismoko urte hauetan jakintza asko

eman dizkidatelako. Egun ere ezinbestekoak direnak. Gaur egun ez daukat entrenatzaile-rik eta inguruan jende asko entrenatzaileak baditu ere, nik atletismoa utzi nuenean erabaki nuen ez nuela konpromiso handiegirik hartu nahi eta neure buruari kasu egitea gustatzen zait. Gorputza nola daukadan, horren arabera entrenatzen dut.

Lehiatik erretiratzaren zarenan, kirol munduari lotuta ikusten duzu zeure burua?

Kirola niretzat beti izan da nire bizitzaren parte. Gustatuko litzaidake kirola egiten jarraitzea, edozein dela ere; osasuntsu egoteko garrantzitsua da. Txapelketa ez da horren osasuntsua, baina gustatuko litzaidake horretan aritzea ahalik eta urte gehien. Mendi lasterketetan jendea ez da horren azkar erretiratzaren. Taldetxo batekin joaten naiz korrika egitera batzuetan, eta hor badaude bi gizon 60 eta 65 urtekoak. Gure erritmoan ibiltzen dira, eta beti esaten diet nik ere horrela iritsi nahi dudala adin horretara. Rosa Uribe ere badaukagu herrian. Gustatuko litzaidake haren adinean bere pare ibiltzea.

Laburrean

“Abesti bat? Berri Txarrak-en Oreka”

1. Zenbaki bat.
6.

2. Kolore bat.
Arrosa.

3. Kirolari bat.
Allyson Felix.

4. Plaza bat hautatu ezazu.
Axari Trail (Idiazabal).

5. Pelikula bat edo telesail bat.
Empezar de nuevo
(Ona Carbonell).

6. Liburu bat. Isiltasunaren itsasargia (Ibon Martin).

7. Abesti bat.
Oreka (Berri Txarrak).

8. Sare sozial bat.

Instagram.

9. Usurbilgo txoko bat?
Kalezarko Arrantzale plaza.

10. Santixabelak ala Sagardo Eguna?

San Joanak Kalezarren.

11. Oporretarako toki bat?
Asiako hego-ekialdea.



Poza eta festarako gogoia nagusi, auzolanak itzularazi zuen uda giro beteko 39. Sagardo Egunean. Irudi gehiago noaua.eus atarian.



Jendetza batu zen plazan maiatzaren 22ko 39. Sagardo Egunean. Gogotsu aritu ziren herritarrek auzolanean.

Auzolanak bideratu du, 39. Sagardo Egunaren itzulera arrakastatsua



39. Sagardo Eguna hasi aurretik, goizeko 11:00etan Dema plazan bildu ziren goizean goizetik auzolanean hasiak ziren boluntarioak. Sagardo botatzaileak, pintxo nahiz edalontzi saltzaileak, antolakuntza taldeko kideak.... Dema plazan atera zuten ondoko talde argazkian batu ziren.

Talde argazki honek irudikatzen duenak ahalbidetu du bi urteko etenaldiaren osteko itzulera. Auzolanak bideratu zuen maiatzaren 22an ospatu zen 39. Sagardo Egun arrakastatsua. Laguntzarako deia egin zuen antolakuntzak, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek. Erantzun ezinhobeia izan zuena. Bi norabideetan; batetik, boluntarioak behar zituztela sagardoa zerbitzatu, muntaketa lanetarako edota pintxoak sukaldatu eta edalontziak saltzeko. Be-

SAGARDO EGUNEKO AUZOLANA

“Auzolanak bideratu zuen maiatzaren 22an ospatu zen 39. Sagardo Egun arrakastatsua”

gira belaunaldi ezberdinetako zer nolako kuadrila zabala osatu zuten iragan igandean zeregin guztietarako. Giro ederrean aritu ziren, baserri-tar jantziak soinean, usurbildarren festa estimatuenera zetozenei eskuzabaltasun osoz

harrera goxoa egin eta etenik gabe, gelditu gabe, jan-edana zerbitzatzeko pilotalekuan, baita Dema nahiz Askatasuna plazetan ere egokitu zituzten postu anitzetan. Mokadutxoarekin batera, bertako baserrietako sagardoak dastatzeko aukera ederra izan zen. Baita Aginaga, Usurbil eta Zubietako sagardotegietakoak edota Gipuzkoako beste hainbat txokoetakoak ere.

Edalontziak agortuak

Sagardo festaz gozatzera zetozenei ere gonbita argia lu-

zatzen zieten; laguntzera, jai giroan murgildu eta edalontziak nahiz pintxoak erostera. Eta deialdiak harrera ezinhobeia izan duela esan behar; edalontziak erosteko ilara luzeak ikusi genituen frontoiaren bueltan antolakuntzak egokitutako bi salmenta puntuetan. Eta eguerdi parterako agortu ziren, ospakizun egun honetako serigrafiadun edalontziak. Bi urtez bertan behera utzi behar izan ostean, Sagardo Egunaren itzulera izan duen arrakastaren adierazleetako bat izan da.

Plaza bete jende, aspaldi ikusi ez bezala

Bazen plazan elkartzeko go-goa, bazen sagardo eta jai giroa. Herri erdigunea leporaino bete zen, duela bi urte osasun krisialdian murgildu ginenetik ikusi ez bezala, 39. Sagardo Egunaren itzulerekin. Uda giro betean bueltatu zen gainera, usurbildarren festa egun kuttunena. Bat baino gehiago gogotik aritu zen astintzen, eskuarte zeraman abanikoa. Eta

sagardo zaletuen egarria ere asetzeko ahalegin itzela egin eta goizeko 11:30etan hasitako dastaketak hiru ordu irautea aurreikusia zegoen arren, amaiera ordua baino dezente lehenago, 13:30ak aldera jada postu bat baino gehiago bilduta zegoen. Sagardoa agortuta frontoiko nahiz Askatasuna eta Dema plazetako hainbat txokoetan. Sagardoak batu zuen ondoko irudiko jendetza.



Uda giro betean itzuli zen 39. Sagardo Eguna.

NOAUA! K.E.-k ekin zion jaialdiari, belaunaldi berriari keinu eginez

Sagardo Egunarekin lotura estua du NOAUA! Kultur Elkartek. Antolakuntza lanen egoitza izateaz gain, usurbildarren egun estimatuena den honetan argitaratu baitzen 0. alea 1996an, baita sustatzaileen lehen argazkia atera ere. 25 urte bete zituen kultur elkarte honek iaz, eta maiatzaren 22an itzuli zen 39. Sagardo Egunari ekiteko ohorea eskaini zion elkarte honi antolakuntzak, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek.

“Erreferentzialtasunak jarrai dezala beste 25 urteetan”

NOAUA!-koen izenean, lehendakari Idoia Torregarai, Alaitz Aizpurua lan taldearen partetik eta bazkideenean, NOAUA! kide gazteena, June Landaluze igo ziren oholta gainera. Sagardo Eguneako lepokoak jantzi zizkieten antolatzaileek eta Pako Agudo herritarrek aurkezturiko hasiera ekitaldia abiarazi zuten, sagardo botila ireki, edaria zer-



Idoia Torregarai lehendakaria, Alaitz Aizpurua lankidea eta June Landaluze NOAUA! kide gazteena, 39. Sagardo Egunari hasiera ematen.

IDOIA TORREGARAI

“Hurrengo belaunaldiak ere gure proiektura bat egitea nahiko genuke”

bitzatu eta topa eginez. “Gora NOAUA! eta batez ere gora Sagardo Eguna!”, adierazi zien frontoira joandakoei esker oneko, jaialdiaren itzuleragatik antolakuntza zorionduz agertu zen Torregarai.

Oso berezitzat jo zuen pozarren, NOAUA!-ren jatorriaren urtemuga berezi hau par-

tekatzeko aukera izatea. Iaz mende laurdena bete zuen kultur elkarte honen beste 25 urteetako ibilbidea irudikatu zuen. “25 urte hauetan NOAUA! K.E.-k hartu duen erreferentzialtasunak jarrai dezala beste 25 urteetan”.

Belaunaldi berriei ere keinu egin nahi izan zien. “June bezalako bazkide gazteak eta hurrengo belaunaldiak ere gure kultur proiektura bat egitea nahiko genuke eta beraiek katebegiz katebegi jarraitzea NOAUA!ren ibilbidea”.

Sagardoa botatzen sarituak

Sagardoa zerbitzatzen gogotik aritu zirenen artean dago, ondoko argazkiko hirukotea. Denek eman zuten onena baina hiru baino ezin zituen hautatu, botatzaileen txapelketarako 39. Sagardo Eguneako dastatzear zehar azterlanean aritu zen epaimahaia.

Lehia estua

Ez zuen lan erraza izan, baina goizeko jaialdia amaitu aurretik bozgorailuetatik iragarri eta gerora oholta gainera igo zituzten hiru finalistak. Bertan azken erakustaldia egin ostean saritu zituzten hurrenkera honetan, bi urteren ostean itzuli den 39. Sagardo Eguneako bo-



Sagardo botatzaileen txapelketako hiru finalistak.

tatzaile onenak. Hemen duzue behin betiko sailkapena.

Sagardo botatzaileen

txapelketako sarituak

1-Unai Aizpurua.

2-Beñat Arruti.

3-Leire Furundarena.

“Usurbil 1936”-ren postua

Ernai Usurbilek 39. Sagardo Egunean Mikel Laboa plazan egokitutako karpagunearen sarbidean postua kokatu zuen memoria historikoa berreskuratzeko lanean diharduen Usurbil 1936 elkarteak. “Luxuzko mariskada” ere zozketatu zuten errifak erosi zituztenen artean; 1041 izan da zenbaki saritua. Egokitu zaionak, oparia jasotzeko 15 eguneko tartea izango du.

Bardozeke Xarnegu ikastolako bisita

Bardozeke Xarnegu ikastola irailean iraki zuten, eta Udarregi Ikastolan jaso zuten haien bisita igandean. Oraindik oso ikasle gutxirekin hasi badira ere, 7 ikasle dituzte egun, datorren urtean 11 izango dira. Nafartarrak taldeak gonbidatuta, Udarregi Ikastola barrutik ezagutzeko aukera izan zuten.

Proiektu pedagogikoa

Goizeko hamaiketan elkartu ziren Bardozeke ikastolako haur, guraso eta irakasleak Nerea Eraunzetamurgilekin, Udarregi Ikastolako zuzendariarekin. Agerialdeko eraikineko instalazioak eta lan egiteko modua azaldu zizkien bertaratutakoei. Harrituta hartu zuten haiek, ikastola askoz ere handiagoa izateaz gain, instalazio ederrak ikusi zituztelako. Proiektu pedagogikoaz ere aritu ziren hizketan.

Kalejira

Ondoren, giro ederrean kale-rra jaitsi ziren musikarekin gozatu eta herria eta herritar-rrak hobeto ezagutzeko.



Xarnegu ikastolakoak Udarregin.

Oroimenerako espazio berria berreskuratu du, Usurbil 1936 elkarteak

Memoria historikoa berreskuratzen ari den Usurbil 1936 elkarteak hainbat lan-ildo ditu; tartean, 1936ko gerran faxistek erahildako usurbildarrak gogoan hartzeko ekitaldiak egiten ari da azken aldian. Le-rrootakoa da horren adibidea; maiatzaren 14an, Meagan Juan Bautista Aginaga Otegi usurbildarra eta berarekin batera faxistek erahildako Pedro Julian Agirre Gallastegi aiarra oroitu zituzten, hil zituzten bide bazterrean bertan. Usurbilgo herri ordezkari bat bertaratu zen haraino, senideekin batera.

Memoriarako espazioa

Hitza hartu zutenen artean izan ziren, Usurbil, Aia eta Zumaia udaleko alkateak. Hiruren artean adierazpen bat plazaratu zuten. “Toki eta herri guztiek dute euren Gernika txikia, eta horregatik da garrantzitsua toki horiek identifikatzea, ezagutzera ematea eta gerraren ondorioak jasan eta isilarazi zituztenen memoria aitortzeko gune bihurtzea. ‘Hemen hil zituzten’ toki mingarri hori, askatasun demokratikoen defentsarako, bake eta bizikidetzaren balioak transmititzeko eta oroitzapenerako gune bilakatzeko. Ahanzturaren oroimenerako leku. Memoria-



Usurbil 1936 elkarteak maiatzaren 14an Meagan antolatu zuen oroimen ekitaldia. Senideekin batera, Juan Bautista Aginaga Otegi eta Pedro Julian Agirre Gallastegi oroitu zituzten. Argazkiak: Usurbil 1936 elkarteak/ Usurbilgo Udala.

USURBILGO ALKATEA

“Zuen senitartekoen oroimena ezkutuan eramatera behartu zaituztete, baina beti bizi-bizirik izan duzue. Eskerrik asko, beraz, hiru alkateon izenean”

rako espazio. Askatasunerako eta bakerako espazio”.

“Euren memoriaren gordailu izan zarete”

Herri honen memoria historikoak espazio berri bat berreskuratu duen arren, Agurtzane Solaberrieta Usurbilgo alkateak

Bautista Aginagaren eta Pedro Julian Agirrereren senideei zuzenduta adierazi zenez, “zuen senitartekoen oroimena ezkutuan eramatera behartu zaituztete, baina beti bizi-bizirik izan duzue. Eskerrik asko, beraz, hiru alkateon izenean, haien duintasuna eta oroimena bizirik iraunarazteagatik, euren izenak, izanak eta memoria desagerrarazi nahi izan zituen sistema frankistari eta inposatutako bazterketari eta ahanzturari aurre egiteagatik. Euren memoriaren gordailu izan zarete”.

Ildo beretik, “gerraren basakeria guztien testigu izan eta

izua barruraino izanagatik ere, ikusitakoa kontatzeko ausardia izan zuten guztiak” gogoan hartu nahi izan zituen Usurbilgo alkateak. “Lekukotasun haiengatik ez balitz, gorpu asko bide bazter eta kunetetan jarraituko zuket. Oraindik, badira ehunka batzuk. Tamalez. Haiei esker, duintasuna itzuli, memoria berreskuratu eta egia zabaltzeko ezinbestekoa izan da euren adorea eta ekarpena. Lekukotasun horiek ahalbidetu zuten, esaterako, Bautista Aginaga eta Pedro Julian Agirrerren gorpuzkinak berreskuratzea senideek, 1980ean, eta merezi-tako agurra eta aitortza egitea”.

Ahanzturan eror ez dadin



Orbeldiko dantzaria, Meagako oroigarriaren aurrean.



Senideen alboan, agerraldia egin zuten hiru alkateak.

Usurbil 1936: “Herri-aitortza merezi dute”

Meagako oroimen ekitaldian oroigarria kokatu zuen Usurbil 1936 elkarteak “duela 85 urte gertatukoaren memoria nolabait fisikoki irudikatzeko; hainbeste urtez ezkutuan egondakoa argitara emateko”. Gogorazi zuten, “kolpistek Gipuzkoan herriak hartzen zihoazen heinean, errepresioaren arrastoa handitzen joan zen hurrengo egunetan. Gure herrian, egindako mitin batean “Usurbilen laster orrazia pasako” zutela agindu zuten. Baita pasa ere. Segituan hasi ziren atxilotetak eta erailketak”.

Berriz ez gertatzeko

Egun, inguru horretatik igarotzen direnek “bi adarreko zuhaitza edo zerurantz altxaturiko bi beso ikusiko dituzte agian. Hurbiltzen badira, bi izen irakurriko dituzte, Bautista eta Pedro Julianenak. Haiei gertatutakoaren lekuko izan dadila eta halako desmasiarik inoiz, inori, berriz gerta ez dakioken lortzeko balio dezala”, adierazi zuen memoria historikoa berreskuratzeko Usurbilen lanean ari den elkarteak.

Egia argitzeko, azaleratzeko garrantzitsutzat jotzen baitute ezagutza, “jakitea. Ez soilik senide eta lagunentzat, ez soilik alderdikide edo eragin zuten urteetan kontatu duten “irabazleen” historia ez delako egia, gutxienez ez delako egia osoa. Triskantza haren zergatiak eta utzi zituen ondorio lazgarriak ere jakinarazi behar zaizkie ondorengo belaunaldiei. Eta, nola ez, Bautista



Meagako oroimen ekitaldian parte hartu zuen Usurbilgo herri ordezkaria.

USURBIL 1936

“Inolako epaiketa eta defentsarako aukerarik gabe, biak ala biak, tiroz zerraldo utzi zituzten”

eta Pedro Julianek eta beren senideek aitortza publiko bat, herri-aitortza merezi dutelako”.

“Zorigaiztoko patu bera”

1936ko urriaren 1ean, “Bautista Aginaga Otegi, 33 urteko arotza, mendigoizalea eta EAJko Gaztedi alorreko kidea, bere aitaren hileta elizkizunetan zen egun hartan. Elizatik ateratzerakoan, atxilo hartu zuten aitaren galeragatik familiak zuen atsekabea areagotuz. Egun berean, Aiako Olaskoaga-azpi baserriko semea, Pedro Julian Agirre Gallastegi, Orioko udaletxeko ziegatik atera zuten, atarian arropa eta janaria eramatera joandako senideei besarkada bat emateko aukerarik eman gabe. Behar bada Bautistak eta

Pedro Julianek ez zuten aurrez elkar ezagutzen. Baina zorigaiztoko patu berak elkartu zituen”, zioen Usurbil 1936 elkarteak, Meagan. “Juxtu-juxtu Zarauzko fraide batekin konfesatzeko parada eman eta faxistek hona ekarri zituzten. Inolako epaiketa eta defentsarako aukerarik gabe, biak ala biak, hementxe bertan, tiroz zerraldo utzi zituzten”. Utzi diote, “maiz askotan egiten zuten moduan, hil eta gero lurlean botata utzi baitzituzten. Inguruko herritarrek gorpuak jaso eta edozein gizakiari zor zaion duintasuna minimoz lurperatu zituzten horko soroan. Urtia-berriko Erramunek gogoratzen duen bezala: “Bi arbolen artean, enboretan gurutzetxo bana markatuta, zeuden lurperatuak”. Txikiak zirela, errespetuzko keinu moduan, lur gaina hartan ez jolas-teko esaten zieten helduek, “hor bi gizon daudelako”. Ordutik, “44 urtez egon ziren zoroan. 1980ko uztailaren 13an, beren hobotik atera eta gorpuzkinak familien esku geratu ziren”.

Bertsoak oroitu

Usurbilgo sortzaileen ordezkaria bat bertaratu zen Meagako oroimen ekitaldira; bi txistulariek eta Malen eta Jon Mikel Azpiatzuk girotu zuten musikaz, Orbeldiko kide Elorrik dantzaz eta Jon Aizpuruak sortutako bertsook ere abestu zituzten bertaratu zirenek:

Bautista eta Pedro Julian
Beste askoren alboan
Gudan eraman zituzten nahiz ta
Ez ziren inora joan
Meagatera ekarri eta
Ezkutuko su jokoan
Bi gazte lerdan lurlean utzi
Hor amaitzen zelakoan
Urte asko joan diren arren
Oraindik gure gogoan

Senideak urte luzeetan
Non ote ziren galdetzen
Nagusi dira komeni dena
Lur azpietan gordetzen
Memoria ta duintasuna
Hain zaila al da ulertzen?
Sustrai zaharretik kimu berriak
Jarraitzen dute loratzen
Bide bazterrak irekitzen ta
Begi guztiak zabaltzen



Meagan kokatu duten oroimenerako eskultura.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ERAMATEKO!!!

·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Aurreikusitakoa baino milioi bat gehiago, herri inbertsio berrietarako

Udal gobernu taldetik egunotan adierazi dutenez, “diru-poltsa bikaina” du herri honek bereziki, aurtengo aurrekontuetan finantziario falgatik txertatu ezin izan zituzten egitasmoei heltzeko. 2022ko udal aurrekontuetan hain zuzen 1,6 milioi euro zituen jasoak EH-Bilduren gobernu taldeak inbertsioetarako. Orain, “beste milioi bat euro gehitzea planteatzen ari gara”, iragarri dute. 2.614.834 euro beraz guztira, “inoiz Usurbilgo Udalak izandako diru kopuru altuena”, zehaztu dute. Milioi erantsi hau, 2021eko udal aurrekontuen likidaziotik dator. 1,5 milioi euro gehiago ditu egun udalherri honek inbertsioetarako, kopuru horretatik ordea “zuhurtziaz, 500.000 euro gordetzea” erabaki du udal gobernu taldeak.

Zaintza eredu eraldatzeko

Zehaztu dute dirutza hau zertara bideratu nahi duten. Zaintza eredu berritzailea sustatzera begira, orain arteko parte hartze prozesuan “hausnarketa zabala egin dugu”. Besteak beste, egungo zerbitzuen mapaketa eta “Usurbilgo zaintza ekosistema berri bat ere irudikatu dugu”. Abian duten bigarren fasean, “ereduaren eraldaketarako bide-orria” diseinatuko dute. Horretarako, diseinu nahiz inplementazio lanak Matia Institutuari esleitu dizkio. Europako funtsetatik 76.200 euroko laguntza jaso du Udalak.

Gogoan izan, prozesu honi lotuta, Kalezarren adinekoen auzunea eraikitzeke obrak urte amaierarako amaitzea espero dute, 2023. urte hasieran martxan jartzea.

Hasieran proiektutik kanpo geratu baina bidean eskuratu diren laguntzei eta erakunde



Etxealdiara jaisteko San Esteban kalea irisgarri bilakatzeko lanak, Usurbilgo Udalaren inbertsio berrien artean. Argazkia: Usurbilgo Udalak.

UDAL GOBERNU TALDEA
“2.614.834 euro, inoiz
Usurbilgo Udalak
izandako diru kopuru
altuena”

arteke (Udala-Foru Aldundia-Matia) lanketari esker, Ugartondora edota orohar Kalezarren baina baita ekipamendu publiko honetara irisgarritasuna bermatzeko, adinekoen auzunearen eta N-634 errepide lotzeko autobus geltokia eta igogailua eraikiko dituzte. Oinezkoen bidea errepide alboan geltokira. Eskilarak baita Ugaldea industriagunera jaisteko. Udazkenean bertan hasi nahi dituzte lanak. Igogailuaren mantenu lanak Udalak bere gain hartuko ditu.

Txirikordarako ordenantza

Handik hurbil, Ugartondoko urbanizazioan kokatuko den Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa ekipatzeko ere inbertsioa bideratuko du Udalak, obrak 2023. urte hasieran amaitu baino lehen. Legealdiko inbertsio nagusiko (2 milioi eurokoa) etxebizitzak esleitzeko udazkenean osoko bilkuran onartu asmo duten udal ordenantza lantzen ari da Udalaren enkarguz, Hiritik At Koo-

peratiba gazte eta helduekin.

San Esteban kalea

Auzo bizigarriak izatea, tokian tokiko bizilagunekin lankidetzan, udal gobernu taldearen Legealdiko Planean jasoa zuten lehentasunetako bat zen eta ildo honetan egitasmo gehiago aurreikusi dituzte. Etxealdian, bizilagunekin osatu nahi duten Auzoaren Irisgarritasun Plana lantzeko arkitektu talde batekin harremanetan dira jada. Bertara jaisteko oinezkoak lehenetsi eta irisgarri bilakatzeko San Esteban kalea berritzeko proiektua ere idazten dabil, oposiziotik eta bizilagunek eskaturikoari bide emanez. Covid funtsetatik jasotako 208.000 euro bideratuko dira egitasmo honetara.

Elutzeko bidea

Kalezarren, Emakumeen Etxea eta auzo ekipamendua bilduko dituen Pelaiotena eraikineko lanak esleitzeko eskaintzak jasotzeko epea zabalik du Udalak maiatzaren 26ra arte.

Aginagan, Kaxkoan N-634 ondoan, Lastaolan aparkaleku publiko bat egokituko dute eta Elutx Kaxkoarekin lotzeko oinezkoen bidea baita, bertako lurjabeekin hirigintza hitzarmena adostu eta Udalak

ri lurren lagapena “doan eta kargarik gabe” egin ostean. Haiekin adostu dute baita, “bidearen paraleloan joango den espazioaren antolaketa”; berdegune bat eta espazio publiko bat. Haurren mugikortasunerako autonomia ahalbidetuko duena, N634 errepideak eraginda, egun dagoen “arriku eta segurtasun falta” ezabatuta. Bi egitasmoak Hiria Antolatzeko Plan Orokorren (HAPO) lanketaren testuinguruan, “Kale Irekiak” prozesuan aginagarren eskutik jaso eta hortik eratorritako espazio eta mugikortasun planean aurreikusiak zituen Udalak.

27 etxe berri Aginagan

Modu honetan, egungo araudia eskutan aurreikusia zegoen plangintza aldatuko du Udalak HAPO berriarekin; egungoak aipatu bidea ibilgailuentzako zen eta 21 etxe eraikitzea aurreikusten zuen. Egitasmoekin, oinezkoak lehenetsiko ditu bide berriak eta 27 etxe eraikiko dira hiru partzeletan. Eredu horretan gainera, “plaza eta ekipamendu publiko” bana aurreikusi ditu Udalak.

Guztia, datorren udalbatzarrean bozkatzea eraman asmo duten aipatu hirigintza hitzarmenean jasoa dago. Origami arkitektu taldea proiektua diseinatzen ari da, eskuartearen izanda aginagarrei aurkezteko asmoa du Udalak, ekaina amaiera aldera. Lanen esleipena urte honetan bideratu asmo dute.

Digitalizazioaren bidean ere urrats berriak eman nahi ditu Usurbilgo Udalak. Tartean, herriarrek udalbatzarrek digitalizazioa jarraitu ahal izateko inbertsioa bideratuko du, jada aurreikusiak zituzten udalbatza aretoko altzariak berritzearekin batera.

Ingurumenaren zaintza edota azpiegituren hobetzea, inbertsio berrien jomuga

Ingurumenaren zaintzari eta paisaiaren kalitatea hobetzeari dagokionean, Aranerreka parkeko egitas-moko lanak azken txanpan diren honetan, “ildo beretik” herrian gune atsegin gehiago sortu asmoz, Zumarte industriaguneko ibai ertza (trenbide ondotik Ucin alderaino) lehengoratu nahi du Usurbilgo Udalak; “arnasgune naturalean” bilakatu nahi dute. “Erriora gerturatzea” ahalbidetuko duen paseatu, egoteko, nahiz jolasteko eremuan. “Denbora daramagu” diote udal gobernu taldetik, egitasmo honen lanketan. 570.000 euroko exekuzio proiektua idatzi dute, eta finantziazioa eskuratu ere bai; 150.000 euro momentuz Gipuzkoako



Sutegiren efizientzia energetikoa hobetuko dute, bi solairuak bereiztearekin batera. Lanok aurten bideratzea aurreikusia du Usurbilgo Udalak.

Foru Aldunditik eta Gasteiz aldetik, Eusko Jaurlaritzatik hain zuzen. Europako funtsen deialdira ere aurkeztua dute, “erantzunaren zain gaude”. Urtea amaitu aurretik lanok esleitzea litzateke udal gobernu taldearen asmoa.

Sutegiren eraberritzea

Herri azpiegiturretan ere hobekuntzak egin nahi ditu Udalak; Sutegi udal liburutegian esaterako.

Efizientzia energetikoa hobetuko dute, bi solairuak bereiziko dituzte erabiltzaileek

goikoan “isiltasun gune bat sortzeko beharra” adierazi osten. Eta talde lanetarako baliatu ahalko den gela txiki bat ere sortuko dute. Iaz esleituak zituzten obrak, baina deialdi berri bat egin beharko dute aurten, ezin izan zituzten eta gauzatu lanok.

Zereginotaz arduratu behar zuen enpresak, “beharrezko dokumentazio guztia” ez zuen aurkeztu eta ondorioz, deialdi hura “bertan behera utzi behar izan genuen”. Egitasmo hura 2022ko udal aurrekontuetan txertatu “eta ahalik eta azkarren” jarri nahi dituzte lanok abian.

65.000 euroko gainkostua izango dute obrak, azken al-dian izan den prezioen garestitzearen eraginez.

Hiru kreditu aldaketa, egitasmoak bideratzeko

Kreditu aldaketak

■ Lehenengoa (bideratzen ari dira): Aginagako aparkaleku publikorako lur erosketetarako, Sutegi udal liburutegiko lanetarako.

■ Bigarrena (udarako aurreikusia): udalbatza aretoa egokitzeari, Pelaioeneako lanei, Txirikordarako ekipamenduari, Etxealdiako San Esteban kaleko lanei, Elutxeko bideari eta Matiako igogailuari lotua.

■ Hirugarrena: (udazkene-rako aurreikusia): Zumartegi industriaguneko ibai ertza lehengoratzeko, Europako

funtsetako laguntzen ebazpe-naren baitan.

Inbertsio berriak

■ Zaintza eredu berrian sakontzeko:

-Bigarren fasearen parte hartze prozesuaren dinamizazioa, hortik eratorritako proposamen berria sortu eta eredu berriaren inplementazioa: 214.000 euro (3 urteetan).

-Txirikorda, belaunaldi arteko Ugartondoko etxebizitza komunitarioaren ekipamendua: 157.000 euro.

-Kalezarreko adinekoen auzu-

nea eta N-634 lotzeko autobus geltokia eta igogailua: 300.000 euro (bi urteetan).

■ Auzoetako bizi-kalitatea hobetzen segitzeko:

-Aparkaleku publikoa Aginagan: 44.000 euro (bi urteetan).
-Aginagan, Elutx eta Kaxkoa lotzeko oinezkoen bidea: 120.000 euro inguru (datozen bi urteotan).

-Etxealdiako San Esteban kalea irisgarri bilakatu eta oinezkoentzako egokitzeko lanak: 308.334,98 euro inguru (datozen bi urteotan).

-Kalezarko Pelaioenea: 75.000 euroko ekarpena lehendik bideraturiko 500.000 euroko inbertsioari.

■ Ingurumena, zaintza eta paisaia kalitatea hobetzeko:
-Zumartegi industriaguneko ibaiertza lehengoratzeko: 570.000 euro (datozen bi urteotan).

■ Udalaren digitalizazioa:
-Udalbatza aretoaren egokitzea: 62.000 euro.

■ Azpiegitura sozialen hobekuntzak:

-Sutegi udal liburutegiko obrak: 150.000 euro.


Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO


bazkariak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361


www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA


TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, hanburgesak..
paellak enkarguz!
☎ 619 40 91 98
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03

“EH2040: demografia, zaintza eta hizkuntza”, datorren Jakin Jardunaldiko hizpideak

Mende erdia bete dute UEU-ren udako ikastaroek. Edizio berezia prestatu dute urtemuga honen bueltan. Uda parterako iragarri dituzten ikastaro eskaintzan matrikulatzeko epea zabalik da jada uztailearen 1era arte. Iruñean, Eibarren, Bilbon, Donostian, Baionan eta azken urteon antzera, UEU-k, Jakin-ek eta Usurbilgo Udalak elkarlanean antolatutako Jakin Jardunaldia izango dugu Usurbilen. “EH2040: demografia, zaintza eta hizkuntza” izango dute hizpide uztailearen 7an eta 8an, bi egunotan Artzabalaren ospatzekoak dituzten saioetan.



UEU-ren udako ikastaroen baitan iaz antolatu zuten Jakin Jardunaldia.

“Demografia prospektibaren argitan, Euskal Herrian 2040an nolakoa izango den aztertu nahi dugu eta, horren aurrean, lurralde oreka,

hizkuntzaren biziberritzea eta ongizate politiken eta zaintza ereduaren demokratizazioa erdiesteko zer aukera dugun eta nola egin hausnartu”, anto-

latzaileek diotenez. Aditu eta aritu talde zabal bat etorriko da uztaila hasieran Usurbilera; Euskal Herriko politologo, soziologo edota kazetari ezagunak. Besteak beste, Usurbilgo zaintza ekosistema egitasmoaren nondik norakoak aurkeztuko dituzte.

Parte hartze aktiboa sustatuko du urtero legez, Jakin Jardunaldiak. Hausnarketa eta eztabaidarako tartea eskainiko du. Edizio berezi honetan, “ahalik eta jende gehienak parte hartu dezan nahi dugu eta hori dela eta, ikastaro guztiek 10 euroko prezio sinbolikoa izango dute”, iragarri dute antolatzaileek.

Usurbilgo zaintza ekosistema aurkeztuko dute

UEU-ren baitako Jakin Jardunaldian udalerrri honek ere bere txokoa izango du. Usurbilgo zaintza ekosistemari buruzko saio bat iragarria dago bi eguneko egitarau zabalean. Proiektu honen bideratzaileen ahotik ezagutuko ditugu parte hartze prozesu betean den egitasmoari buruzko xehetasunak.

■ Zehaztasunak: “Euskal Herria 2040an nolakoa izango da? Zer esaten digu prospektiba demografikoak? Zenbat jende biziko da? Gizarte zahar batera al goaz? Ze eragin du horrek zaintza ereduaren eta pentsioetan? Eta lurralde orekan? Eta euskararen? Eta hirien antolaketan? Zein den

etorkizuna eta zer nolakoa izan dadin nahi dugun jakin behar dugu etorkizun dagoenari aurre hartzeko”.

Uztailak 7, osteguna

■ 08:45-09:00 Harrera eta dokumentazioaren banaketa.

■ 09:00-09:30 Ongi etorria eta jardunaldiaren aurkezpen saioa: -Agurtzane Solaberrieta, Usurbilgo alkatea.

-Kepa Sarasola, UEUko lehen-dakaria.

-Lorea Agirre, Jakin-eko zuzendaria.

■ 09:30-10:30 “H2040: zer dio prospektibak?”

Imanol Esnaola, Demografian aditua, Gaindegia-ko kidea.

■ 10:30-11:00 Atsedenerako tartea.

■ 11:00-11:45 Hitzaldia: Marta Luxan, EHUko Soziologia irakaslea eta doktorea antropologian.

■ 11:45-12:30 Hitzaldia: Felix Arrieta, Soziologia irakaslea Deustuko Unibertsitatean. Zaintza politketan aditua.

■ 12:30-13:15 Denen arteko elkarrizketa eta eztabaida saioa.

■ 13:30-15:00 Bazkaria.

■ 15:00-15:45 Hitzaldia: Jule Goikoetxea, Politologoa eta filosofoa. EHUko irakasle eta doktorea.

■ 15:45-17:00 Usurbilgo Zaintza Ekosistema egitasmoa: Erkuden Aldaz eta Maider Azurmendi, egitasmoaren bideratzaileak.

Uztailak 8, ostirala

■ 09:30-10:15 Hitzaldia: Gari Goikoetxea, Kazetaria. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) teknikaria.

■ 10:15-11:00 Hitzaldia: Itsaso Olaizola, soziologoa.

■ 11:00-11:30 Atsedendaldia.

■ 11:30-12:15 Denen arteko elkarrizketa eta eztabaida saioa.

■ 12:30-13:00 Ondorioak eta sagardoarekin topa.

■ Matrikulazioa: uztailak 1.

■ Prezioa: 10 euro.

■ Informazio gehiagorako: ueu.eus

■ Antolatzaileak: UEU, Jakin eta Usurbilgo Udalak.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA
·komertzial instalazioak ·beira bikoitza
·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratu eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Punta-pax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondo jatetxean. 626 686 036

Santuenean adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona euskalduna behar

da. Astelehenetik ostiralera, goizeko arratsalde, eta larunbatean goizez. Guztira 38 orduko lan astea. Adinekoak zaintzeko titulua izatea baloratuko da. Interesatuok deitu 652728446 zenbakira.

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, egunezko lau ordu, Eusko Jaurlaritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Jada umeekin esperientzia badaukat. Interesatuak: 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharberritzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko lan bila nabil. Orduka, gauak edo astebukaerak interna moduan aritzeko disponibilitatea daukat. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. 695 184179/aneseoane@gmail.com

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketa lanak egite-

ko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkatz. 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu dituenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako bost txerrikume ere bai. 607 668 603 (Joxe Cruz)

**Zorionak Peru!**

Maiatzaren 25ean 11 urte! Oso ongi ospatu! Muxu handi bat etxekoan partez.

Santixabeletako Pilota Txapelketa

Maiatzak 26, osteguna

■ 20:30 Seniorrak: Santxo-Urruzola/Lizaso-Urbietia

Maiatzak 27, ostirala

■ 19:30 Infantilak: Tolo-sa-Azkoitia. 20:00 Seniorrak: Amiano-Iztueta/Vidan-Telletxea

Maiatzak 28, larunbata

■ 11:00 Infantilak: Andoain-Pagazpe/Hernani. 11:30 Seniorrak: Egiguren-Elosegi/Eskudero-Usandizaga eta Etxezarreta-Aranguren/Nazabal-Lazkoz.

Maiatzak 29, igandea

■ 11:00 Infantilak: Añorga-Behar Zana. 11:30 Seniorrak: Urkizu-Ortiz de Urbina/Orbegozo Albeniz eta Apezetxea-Olaetxea/Eguren-Oliden

Heriotzak

Maria Zumeta

Marichalar

Maiatzaren 16an

hil zen

80 urterekin

**Udaberri Pilota Txapelketa**

Maiatzak 27, ostirala

■ 18:30 Usurbilgo frontoian:

-Infantilak 2. maila: Pagazpe-Izurun 1

-Infantilak 1. maila: Pagazpe-Lapke

Goardiako farmaziak

Osteguna 26 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 27 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 28 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 29 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 30 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 31 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 01 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Osteguna 02 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 03 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 04 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 05 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda maiatza

26 osteguna

- **1. Txalaparta Festa: "Txalaparta eta txalapartariak" hitzaldia.** 19:00etan Sutegin. Hizlaria: Juan Mari Beltran Argiñena.

27 ostirala

- **1. Txalaparta festa: tailer didaktikoa** ikasleekin. Udarregi Ikastolan.
- **OinHerriren hausnarketarako eremu askea.** 18:00etan Potxoenean.
- **Sarek deitutako elkarretaratzea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

28 larunbata

- **Kantu-jira.** 12:00etan Mikel Laboa plazan.
- **1. Txalaparta Festa.** 11:45ean Herri erromeria. 14:00 Bazkaria Artzabalen. 18:00 Jexux Artzeri omenaldia. 18:45 Kimu eta Hutsun Txalaparta Taldeak.

Lehen Txalaparta Festa

Txalapartaren kultura plazaratu eta duela 20 urte zendutako Jexux Artze omentzeko asteburua izango dugu Usurbilen.

Maiatzak 26, osteguna


- 19:00 "Txalaparta eta txalapartariak" hitzaldia Sutegiko auditorioan. Hizlaria: Juan Mari Beltran Argiñena. Euskal Musikaren Txokoa.

Maiatzak 27, ostirala

- Txalapartari buruzko tailer didaktikoa, Udarregi Ikastolako ikasleekin.

Maiatzak 28, larunbata

- 11:45-14:00 Herri erromeria, Mikel Laboa plazan: adar deia; txalaparta eskolako ikasleen emanaldiak; txalaparta irekia (txalaparta eta adarra jotzen ikasteko ikastaro azkarrak eta adar ugari jotzeko



Duela 20 urte zendutako Jexux Artze omenduko dute 1. Txalaparta Festaren baitan.

aukera).

- 14:30 Bazkaria Artzabalen.
- 18:00 Jexux Artzeri omenaldia Dema plazan (20. urteurrena).
- 18:45 Kontzertuak: Kimu Txalaparta eta Hutsun Txalaparta Taldea.

- Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea.
- Babeslea: Usurbilgo Udala.

OinHerriren hausnarketarako eremu askea

Lasaitasun osoz, hausnartu, hitza hartu, partekatu eta elkar entzuteko eremu aske bat osatu nahi du Usurbilgo OinHerri lan taldeak, maiatzaren 27rako 18:00etan Potxoenean antolatu duen saioan. LH 5 eta 6 mailetako ikasleekin batetik, helduekin bestetik, argudiatu, filosofiaren historiako

gai handiei buruz gogoetatu edota pentsamendu autonomoa garatzen laguntzea du xede, beste herri batzuetan jada martxan diren esperientziok. Amu gisa gai bat dute abiapuntu, gai horren inguruko galdera bat. Hortik aurrera, hausnarketarako tarte askea ostiral honetan Potxoenean.

Datozenak

Sareren elkarretaratzea

Euskal presoek eskubideen aldeko hileroko azken ostiraletako mobilizazioa, maiatzaren 27an 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Kantu-jira

Kantu-jiran irtengo dira Usurbilgo Euskal Kantu Taldeko kideak, maiatzaren 28an 12:00etan Mike Laboa plazatik. Ez ahaztu kantu-liburuxka. Gogoan izan, astelehenero biltzen dira entsegu saioetarako arratsaldeko 18:00etan Agerialdeko musika gelan.

Kulturgileen azoka

Udazkenaz geroztik, Usurbilgo kultur-gintza sektorea bilgune bat eraikitzeko lanean ari da. Prozesu luze horretan, sektorearen erakusleihoa izan nahi du ekainaren 5erako, igande eguerdi partarako antolatu duten Kultur Eragileen Azokak.

Ikastola Eguna

Ekainaren 6an hasitako ekitaldi zikloa, hilaren 11n ospatuko duen Ikastola Eguneko bazkariarekin borobilduko du Udarregi Ikastolak. Txartelak salgai izango dituzte idazkaritzan ekainaren 6ra arte. Hurbilagoren menua dastatu ahalko da: 10 eurokoa haur eta gazte-txoentzat, 16 eurotan helduentzakoa.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



EHZ

Uztailak 2,3 eta 4an
Irisarrin izango den
Euskal Herria Zuzenean
jaialdirako
3 eguneko sarrera bikoitza
zozketatuko dugu, maiatzaren 27an



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



ERRIGORAKO PRODUKTUEN
Bi saski
zozketatuko ditugu
NOAUA!ko bazkideen artean



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

Edertu zaitez!

INDIBA
DEEP BEAUTY
PROGIC BODY CARE SYSTEM

DESKONTU BEREZIAK

• ZELULEN BIRSORTZEA • LIPOLISISA • MODELAKETA • ERREAFIRMAZIOA
• AZALAREN TONIFIKAZIOA • OXIGENAZIOA • HIDRATAZIOA • LIFTING

✓ ZELULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LEUNKETA
✓ BULARREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILUETAREN HOBEKUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

Enar
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK : PRESOTERAPIA TERMOLINEA ELEKTROESTIMULAZIOA • ZIMUNTZERAPIA
munalurra 2, USURBIL 943 571680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96



**secretos™
del agua**

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

osasungarriak eta
kimikarik gabe

Egurdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462



**GOLDWELL
ELUMEN**

9.00etatik 19.00etara zabalik

**BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA**

KONTSULTA DOAN!

mistoa

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951